

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2023ko ekainaren 17tik ekainaren 23rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/06/19

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 6koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, lore eta landareen salerosketako enpresen 2021eko eta 2022ko estatuko hitzarmen kolektiboko soldatak berraztertzeako akta erregistratzen eta argitaratzen duena. **14579 xedapena- 4 or.**
- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 6koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, aireportu-*retail*eko operadoreen II. Esparru-akordioa erregistratzen eta argitaratzen duena. **14582 xedapena- 13 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2023/06/20

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA. EBAZPENA,** 2023ko ekainaren 5koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez xedatzen baita Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren menpean dauden eskola-garraioko laguntzaileen eta jolastokiko zaintzaileen enpresa emakidadunen hitzarmen kolektiboaren Batzorde Paritarioak 2023ko soldata-taulei lotuta egin duen akordioa erregistratu, argitaratu eta gordailutzea (hitzarmenaren kodea: 86002445012005). **2916e xedapena- 3 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2023/06/19

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** 2023-2026 urteetarako Gipuzkoako Sukaldaritza-arloko Enpresen hitzarmen kolektiboa. **04299 xedapena- 50 or.**
- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** Akatsen zuzenketa: 2023-2026 urteetarako Gipuzkoako Industria Sidero-Metalurgikoaren hitzarmen kolektiboa. **04373 xedapena- 7 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2023/06/17

- **OGASUN ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** Ekainaren 14ko HFP/626/2023 Agindua, bidalketa berrmatuei buruzko garapen-arauak, 504 eredua ("Europar Batasuneko beste estatu batzuetan fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapean dauden produktuak jasotzeko baimenaren eskaera"), 505 eredua ("Fabrikazioaren gaineko zerga berezien kargapean dauden Europako Batasuneko produktuak bidaltzeko eta jasotzeko baimena") eta 507 eredua ("Itzulketa-eskaera bidalketa berrmatuko sisteman") aldatzen dituen, haiek aurkezteko modua eta prozedura zehazten duena eta lurraldeko erregistroko izen-ematea arautzen duena. **14425 xedapena- 20 or.**

2023/06/19

- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Gizarte Segurantzaren.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 8koa, Gizarte Segurantzaren Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiarena, Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuei kontingentzia arrunten ondoriozko aldi baterako ezintasunagatiko prestazio ekonomikoen kudeaketarako koefizienteak aplikatzeko baldintzak ezartzen dituen, enpresa elkartuetako besteren konturako langileak direnean. **14595 xedapena- 13 or.**

2023/06/20

- **GARRAIOETAKO, MUGIKORTASUNEN ETA HIRI AGENDAEN MINISTERIOA. Abiazio zibila.** Ebazpena, 2023ko maiatzaren 24koa, Aire Segurtasuneko Estatu Agentziaren Zuzendaritzarena, 2022ko otsailaren 25eko Ebazpena (2014ko azaroaren 26ko Europako Batzordearen 1321/2014 Erregelamenduaren (EB) CAMO.A.305 c) apartatua betetzeko ordezkoko modu bat ematen duena) baliogabetzen duena. Europako Batzordearen erregelamendu hori aireontzien aire-nabigagarritasunaren eta produktu aeronautiko, osagai eta ekipoen mantentze-lanei eta lan horietan parte hartzen duten erakunde eta langileak onesteari buruzkoa da, segurtasun-arduradunek frogatu beharreko eskakizunei dagokienez. **14601 xedapena- 2 or.**
- **INKLUSIOKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA. Euskal Autonomia Erkidegoa Hitzarmena.** Ebazpena, 2023ko ekainaren 14koa, Idazkaritza Tekniko Nagusiarena, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko informazio-trukeari buruzko hitzarmena argitaratzen duena. **14675 xedapena- 17 or.**

2023/06/21

- **BARNE MINISTERIOA. Babes zibila.** 524/2023 Errege Dekretua, ekainaren 20koa, Babes Zibileko Oinarrizko Araua onesten duena. **14679 xedapena- 13 or.**

2023/06/22

- **OGASUNEKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. Zergak.** HFP/645/2023 Agindua, ekainaren 20koa, balio erantsiaren gaineko zergaren 381 eredu onesten duena. Europar Batasuneko estatu kideetako indar armatuek segurtasuneko eta defentsako politika orokorraren esparruan jasandako zerga-kuotak itzultzearen eskaera (ekainaren 13ko 443/2023 Errege Dekretuaren bidez onetsitako erregelamenduaren 5.2 artikulua) eta hura aurkezteko modua eta prozedura zehazten ditu, eta EHA/1729/2009 Agindua, ekainaren 25koa, aldatzen du; agindu horrek harreman diplomatiko eta kontsularren testuinguruan eta nazioarteko erakundeetara eta Ipar Atlantikoko Tratatuan parte hartzen duten estatu kideetako indar armatuetara bideratzen diren ondasun eta prestazioak entregatzeari dagokionez balio erantsiaren gaineko zergatik eta zerga berezietatik salbuesteko ziurtagiriaren eredu onesten du, eta BEZaren autolikidazioak bidaltzeko gutun-azala onesten du. **14734 xedapena- 15 or.**
- **TRANSIZIO EKOLOGIKORAKO ETA ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO MINISTERIOA. Hondakinak.** TED/646/2023 Agindua, ekainaren 9koa, tratamendu mekanikoen eraginpean izandako eta produktu plastikoak fabrikatzera bideratutako hondakin termoplastikoek hondakin izateari noiz uzten dioten zehazteko irizpideak ezartzen dituen, apirilaren 8ko 7/2022 Legearen arabera (ekonomia zirkularrerako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa). **14735 xedapena- 18 or.**
- **EKONOMIA GAIETAKO ETA TRANSFORMAZIO DIGITALEKO MINISTERIOA. Metalezko txanponak.** ETD/647/2023 Agindua, ekainaren 14koa, zirkulaziorako egokiak ez diren euro txanponen eta euro txanpon faltsuen behin betiko norakoari buruzkoa. **14736 xedapena- 4 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2023/06/19

- **LEHENDAKARITZA.** 6/2023 LEGEA, ekainaren 8koa, erreferentziako merkaturatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-bonu termikoa kudeatzeko eta ordaintzeko informazioa jakinaraztea arautzen duena. **2881e xedapena- 3 or.**

2023/06/20

- **EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA.** AGINDUA, 2023ko ekainaren 9koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko barne-arroetan eta itsas uretan eremu sentikorren izendapena berrikusteko eta uztailaren 16ko 111/2019 Dekretuaren eranskina aldatzeko dena. **2913e xedapena- 4 or.**

2023/06/21

- **LAN ETA ENPLEGU SAILA.** AGINDUA, 2023ko ekainaren 9koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, langileek, dagozkien ordainsariak jasota, 2023ko uztailaren 23ko Gorte Nagusietarako hauteskundeetan parte hartzeko arauak ematen dituen. **2946e xedapena- 3 or.**
- **GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA.** 62/2023 EBAZPENA, ekainaren 16koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta hari atxikitako sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateetan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak onartzen dituen erabakia. **2947e xedapena- 18 or.**

2023/06/23

- **HEZKUNTZA SAILA.** AGINDUA, 2023ko ekainaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez 2023-2024ko ikasturtean Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko goi-mailako hezkuntzako zerbitzu publikoen truke ordaindu beharreko prezioak finkatzen baitira, bai eta prezioetan salbuespenak eta murrizketak izateko baldintzak ezarri ere. **2989e xedapena- 13 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

2023/06/19

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETUAK.** Foru Gobernu Kontseiluaren 30/2023 Foru Dekretua, ekainaren 13koa. Onestea ur baliabideak kudeatzeko laguntzen oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia. **1852E xedapena- 15 or.**

2023/06/21

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 408/2023 Foru Agindua, ekainaren 12koa, 2023ko helbideratutako zerga sarreraren egutegia aldatzea ezartzen duena. **1830E xedapena- 2 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2023/06/20

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 240/2023 FORU AGINDUA, ekainaren 12koa, finantza-transakzioen gaineko zergaren autolikidazioa egiteko 604 eredu onesten duena. **I-726 xedapena- 26 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2023/06/19

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Batzordearen 2023/1176 Erregelamendu Delegatua (EB), 2022ko uztailaren 14koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1315/2013 Erregelamendua (EB) aldatzen duena Garraioaren Europaz gaindiko Sarearen mapei dagokionez. **L 156/1 xedapena - 5 or.**
- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Batzordearen 2023/1177 Erregelamendu Delegatua (EB), 2023ko apirilaren 5koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 767/2008 Erregelamendua (EB) osatzen duena okupazio-zerrenda lehenetsiari dagokionez, Bisen Informazio Sistemaren ondorioetarako. **L 156/6 xedapena - 25 or.**

2023/06/20

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/1182 Erregelamendua (EB), 2023ko ekainaren 14koa, Ipar Irlandan merkaturatzeko giza kontsumorako medikamentuei buruzko arau espezifikoari buruzkoa, 2001/83/CE Direktiba aldatzen duena. **L 157/1 xedapena - 7 or.**
- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Batzordearen 2023/1185 Erregelamendu Delegatua (EB), 2023ko otsailaren 10ekoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/2001 Direktiba (UE) osatzen duena, karbono birziklatuzko erregaiei aplikatu beharrekoa, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko gutxieneko atalase bat ezartzen duena eta jatorri ez-biologikoko erregai likido eta gaseosoetatik eta karbono birziklatuzko erregaietatik eratorritako berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa ebaluatzeke metodologia bat zehazten duena. **L 157/20 xedapena - 14 or.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - BILBAO